

MOTZEAN

ALAVES

Arabarrek 1-3 irabazi zioten Oviedori

Alavesek San Mateo Torneoako lehen txapelketa irabazi zuen, Oviedori, etxeko taldeari 1-3 irabazita. Manek hasierako hamaikakoan jokatzeko ez duten jokalariei eman zien aukera, eta haiek lan ona egin zuten. Aipamen berezia merezi dute arlo horretan Witschgek eta Vuckok, gol bana lortuta. Oviedo 1-0 aurreratu zen, baina bigarren zatia hasi eta berehala 1-2 aurreratu ziren arabarrak, eta lehia erabakita utzi zuten.

REALA

Azkenean ez dute Colleten izena eman, eta ez du fitxarik izango

Herenegun kontrakoa esan bazuen ere, Realak atzo Stephane Collet frantziarari fitxarik ez diola egin azaldu zuen. Asotelehenean amaitzen zen Espainiako Federazioan 2001-02 denboraldirako jokalarien izena emateko epea, eta Realak Colletena eman zuela azaldu zuen. Atzo, ordea, ohar baten bidez frantziarra fitxarik gabe geratu dela azaldu zuen klubak, eta jokalaria, beraz, ezingo du Realarekin Espainiako Ligan jokatu.



EFE
Stephane Collet, bere aurkezpenean.

ATHLETIC

Lagunarteko partidua jokatuko du gaur Barakaldoren aurka Bilbon

Athleticek lagunarteko partidua jokatuko du gaur San Mamesen 17:00etan. Ez da ohikoa horrelako neurketak Bilbon jokatzeko, baina zaleek jokalaria futbol zelaian ikusteko aukera izango dute, ateak irekita izango baita. Hala ere, ziu-rrenik Heynckesek ordezkioak zelairatuko ditu. Bestalde, 2001-02 denboraldirako posterrean agertzeko oraindik 212 leku geratzen dira, eta bazkideek aukera dute izena emateko hilaren 25a arte.

TXAPELDUNEN LIGA

Manchesterrek eta Juventussek larri menderatu dituzte Lille eta Glasgow Celtic

Erredakzioa | DONOSTIA

Manchester Unitedek eta Juventussek uste baino arazo gehiago izan zituzten Txapeldunen Ligako lehen partida irabazteko. Manchesterrek 1-0 irabazi zion Frantziako Lilleri, David Beckham kapitainak 89. minutuan sartutako gol bati esker. Juventus ere izerdi franko bota zuen merezi gabe esku hutsik geratu zen Celtic Glasgowren aurka. Juventus 2-0 aurreratu zen Trezegueten bi goli esker, baina Celticek berdinketa lortu zuen partida hondarrean. 90. minutuan, ostera, Juventusko Amorusok 3-2koa lortu zuen, penaltiz.

Atzo jokatutako beste partidetan, Bartzelonak aise menperatu zuen Fenerbahce, 0-3, eta Municheko Bayern eskas aritu zen Pragako Spartaken aurka (0-0).

Gaur, bestalde, A, B, C eta D multzoetako taldeek bigarren jardunaldia jokatuko dute: Anderlecht-Roma, Real Madril-Lokomotiv Mosku, Boavista-Dinamo Kiev, B. Dortmund-Liverpool, Arsenal-Schalke 04, Panathinaikos-Mallorca, Lazio-Nantes, eta PSV Eindhoven-Galatasaray.

EMAITZAK

Juventus 3-2 Celtic G.
Rosenborg 1-2 Porto
Fenerbahce 0-3 Bartzelona
O. Lyonnais 0-1 B. Leverkusen
Deportivo 2-2 Olympiakos
Manchester U. 1-0 Lille
Bayern Munich 0-0 S. Praga
Spartak Mosku 2-2 Feyenoord

PlazoNet

ESUKADIKO KUTXA

3.000 eurotik 24.000 eurora
(499.158 pta.tik 3.993.264 pta.ra)



Errentagarritasunaz dakitenak
dagoeneko etorri dira hona.

www.cajalaboral.com

Orain, Euskadiko Kutxaren PlazoNeti esker geroz eta jende gehiago hurbiltzen zaigu internet bidez bere aurrezkiak handitzen ikusteko. Zeren zain zaude sartzeko?

Epea:	3 hilabete
Gutxienezko zenbatekoa:	3.000 euro (499.158 pta.)
Gehienezko zenbatekoa:	24.000 euro (3.993.264 pta.)
Kontratazio eskubidea:	Caja Laboral Nete bitartez
Interesen likidazioa:	mugaeguneari

* UTBa 3.000 eurotik (499.158 pta.) aurrera. Eskaintzak 12.000 milioi pta.ko muga du.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean